



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/01/10 Udaletxean 18.00-19:30



### Gaurkoan bildu gara,

- Adur Ezenarro (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri ekimena)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Lanagatik bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)  
Patxi Arrospide (Herritarra)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **Edukiontzien bidezko sistemaren jarraipena**
3. **Landarlanen eskaera: auzokonpostaren kudeaketa**
4. **Ordizia Orainen eskaera: edukiontzien ordainketa egingo ez denaren akta.**
5. **Ordenantza**

### Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartu da.

### Ordizia Orainen eskaera: edukiontzien erosketaren ordainketa



ORDIZIA ORAIN: Sasietako edukiontzien erosketa ez dela ordainduko adosten duen dokumentua azaltzea nahi dut, ez bada azaltzen mahaitik altxako naiz.

ALKATEA: Mahai honetan gai hau landu dela uste dut. Mahai honetako partehartzaile asko falta dira, prozesuan parte hartu dutenak.

ORDIZIA ORAIN: Jakin nahi dugu non jarrita dagoen.

EAJ: Ekainak 7ko bileran landu zen.

ORDIZIA ORAIN: Dokumentua erakustea eskatzen dut. Non dagoen galdetzen du.

	<p style="text-align: center;"><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p style="text-align: center;"><b>2017/01/10 Udaletxean 18.00-19:30</b></p>	
---	---	---

ALKATEA: Hondakin mahaiaren postura hori zen.

EAJ: Ekainak 7ko bileran landu zen baina inork ez zuen ezer esan.

ORDIZIA ORAIN: Adostasuna ez zen lortu.

HERRI PLATAFORMA: Ez zen ezer adostu behar. Mahai honetan hitz egin zen.

BILDU: Irabaziko Carlosek hainbat bileretan atera du gai hau. Gai honen erabilpen bat egin da, hondakin mahaiaren ordainketa ez egiteko eskaera adostu egin zela esan da. Baina ez da inongo momentuan adostu, hitz egin da baina ez da adostu. Sasietako bilera horretan Ordizia Orain eta Bilduko ordezkariak abstenitu egin ziren. Bigarren aldaketa ordaindu egin behar zela erabaki zen. Mahai honetan iritziak egon ziren baina ez zen erabakirik hartu. Mahai honetan gai batzuk (deialdiak, bandoak,...) adostu dira baina gai hau ez. Sasietan erabaki hau EAJ alderdiak defendatu zuen bozka guztiekin, egin dezakegu nahi dezuen demagogia guztia.

EAJ: Nik pentsatzen badut Ordiziarako txarra dela, nahiz eta partiduak esan gauza bat egiteko nik beti Ordiziako interesak defendatuko ditut. Nik ez dakit gai hau bozkatu zen baina nik uste denen iritzia zela eta hau ez bada baliozgarria erabaki bat hartzeko "apaga y vamonos".

ALKATEA: Behin ere ez dugu bozkatu gairik mahai honetan. Gai hau borrokatu egin behar zen.

ORDIZIA ORAIN: Baina hondakin mahaiaren adostu zela esan zenuten eta non dago adostasun hori.

HERRI PLATAFORMA: Bozketarik ez zen izan baina gehiengo iritzia hori izan zen.

PSE: Gai hau bilera askotan hitz egin da eta nik pentsatzen nuen mahaiaren erabat ados zegoela Sasietak ordaindu behar zuelaren erabakiarekin. Inork ez du esan kontrarik baina defendatzen duguna bat baino gehiagok esan dugu.

ORDIZIA ORAIN: Pleno batetan esan zenak min egiten duela esan zuen eta hori Alkateak egin zuela.

ALKATEA: Lehenbizi Carlosek eman zuen adostasun honen berri plenoan eta hurrengoan nik egin nuen.

BILDU: Hau aurreko bilera batetan landu zen eta adostasunera ez ginela iritsi ikusi genuen. Iritziak egon ziren baina ez zen iritsi inongo adostasunera. EAJko iniziatiba bat izan zen bigarren aldaketa honen ordainketa.

EAJ: Ni izan banintza ez nuen hori egingo.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/01/10 Udaletxean 18.00-19:30



ALKATEA: Nik nere partiduan ez ordaintzea defendatu nuen.

BILDU: Proposamena EAJko botoekin lortu zen.

PSE: Eta PSEko botoekin ere. Institutio askotara udalerriak joaten dira eta ez partidu politikoak.

BILDU: Hurrengo batetarako hondakin mahaiak ez du adostu ezta defendatu edukiontzi hauen ez ordainketa.

ORDIZIA ORAIN: Esaten duzuen adostasuna ez da existitzen.

TEKNIKARIA: Martxoan eta ekainean landu dugu gai hau.

EAJ: Desadostasun bat dagoenean bozkatu egin beharko da.

TEKNIKARIA: Mahai honetan inongo bozketarik ez zela egingo esan zen.

PSE: Ni konbenzituta negoen mahaiak adostu zela. Baina orain zein postura defendatuko zenuten jakin nahiko nuke? Nik defendatuko dut Sasietak ordaindu behar duela.

ORDIZIA ORAIN: Proposamenak plenoak defendatuko ditu. Sasietak gaiak plenoak erabakitzen ditu.

NEKANE: Ekainean hitz egin zen baina ez zen ezer erabaki.

EAJ: Mahai honen gainetik orduan sapai politiko bat dago.

ORDIZIA ORAIN: Sasieta Mankomunitateko gaiak plenoari dagozkie.

PSE: Nire galdera ez duzue erantzuten. Behar badira, nork ordaindu behar ditu edukiontzi berriak?

BILDU: Beti esan dugu ordainketa Sasietak egin behar duela. Baina esan behar bada hondakin mahaiak adostu zela, bertan adostuta egon behar du.

ORDIZIA ORAIN: Sasieta guk ez dugu boteririk, EAJk dauka. Nik pertsonalki Sasietak ordaindu behar duela pentsatzen dut.

NEKANE: Sasietak behin ere ez du erantzun. Atez atekoa kendu da eta gero ez da esan ekonomikoki ze eragin izan duen, lehen kuboekin eta gero edukiontziekin. Udalak ez du gastuen informazioa ematen. Eta guk ez dakigu ezer ere.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/01/10 Udaletxean 18.00-19:30



ALKATEA: Atez atekoaren datua eman zuen. Sasieta egin zitzaion edukiontzien ordainketaren inguruko galdera eta ez zuen erantzun. Sasieta Batzorde Iraunkorrean bigarren aldaketaren gastua Udalek asumitu behar zutela onartu zen. Ordiziako EAJk defendatu zuen Udalaren gain ez hartzea.

NEKANE: 2016ko Sasieta aurrekontu orokorraren datua egunkarian azaldu zen.

ALKATEA: Aurrekontu horretan ez zeuden aurreikusita Ordiziako edukiontzia. Udalak onartu arte edukiontzien erosketak egiteko diru partida, Sasieta ez zuen erosketak hau martxan jarri.

ALKATEA: Urteko kontuak oso garbi aurkezten ditu Sasieta.

BILDU: Datu orokorrak bai baina beste datu batzuk ez, guk komertzioetako eskatu diegu eta ez digute eman.

ALKATEA: Iritzi kontrajarriak daude eta mahai honetako ordezkari asko falta dira.

EAJ: Adostasun batetara ez bagara iristen mahaiak iritzi ezberdinak izango ditu.

BILDU: Baina ez badago adostasunik mahai honetatik kanpo hori ezin da esan.

PSE: Ez da inor kontra jarri, Sasieta ordaindu behar duela denak pentsatzen genuela uste nuen.

ORDIZIA ORAIN: Mahai adostua izan bazen gu Sasieta joango ginen eta borrokatu egingo genuen.

PSE: Nik gaia utzi egingo nuke. Ordezkari asko falta dira eta beste gai batzuk lantzeko ditugu.

Mahaiko ordezkari denak daudenean landuko da berriro ere edukiontzien ordainketaren inguruko gaia.

### Edukiontzien bidezko sistema

Abenduko gaikako bilketaren datua oraindik ez da argitaratu.

### Iturtxoko puntua

Kexa batzuk daude, egoera txarra delako. Sasieta jarraipen bat egiten ari da eta neurriak Alkatea, Sasieta bi ordezkariekin eta hondakin mahaiarekin landuko dituzte.

Poltsa batzuk tabernatakoak dira, guk karakterizazioa egin genuenean hau ikusi genuen.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/01/10 Udaletxean 18.00-19:30



Hurrengo bi astetan egingo dute jarraipena.

### Zakarrontziak

Poltsak goraino egoten dira, errefusan poltsak daudela ematen du. Puntuak:

- Apellanizen
- Gaztetxe inguruan

Zakarrontzien egoera garbitzaileei galdetuko zaie, zein puntu ikusten dituzten gaizki.

### Edukiontzia

Gaizki dauden puntuak:

- Elkano – Euskalerrria
- San Juango mugan: gehienak Itsasondokoak dira. Sasieta eta Itsasondoko Udalarekin hitz egin.

Elkarteetako hondakin bilketa: Eskarabillan poltsa beltzak azaltzen dira. Elkarteetako bilketa tabernetako berdina da.

Organikoaren zakarrontzian poltsa konpostagarriak ez dira jartzen. Zergatik galdetzen da?

### Edukiontzien sarraila

2-3 fallo puntual izan dira. Sasieta sarrailaren sistemaren balorazio bat eskatuko zaio.

### Neurri zuzentzaileak

Ez daude bideratuta. Gasteizen isunak jartzen hasi dira hondakinak lurrean uzten duenari. Neurri hauek aztertu egin behar ditugu. Lehenengo edukiontzi puntuetan neurri zuzentzaileak jarriko dira.

### Hondakinen karakterizazioak

Gehiago egin behar dira. Maiztasun handiago batekin test moduan.

### Landarlanen eskaera: auzokonpostaren kudeaketa

Landarlaneko kideak azaroko bilerara ez zirela azaldu Aralarko gaiarengatik esan du baina abenduko bilerara azaltzekoak zirela baina datarekin nahastu zirelako ez zela azaldu komentatu du. Abenduko aktan jasotako ekarpenekin ez naiz sartuko.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/01/10 Udaletxean 18.00-19:30



EAJ: Ekarpen hauen inguruan zure iritzia eman behar duzu.

PSE: Mahai honetatik kanpo dagoen gai batengatik mahai honetara ez etortzea ez nuen ulertzen.

EAJ: Nik ere ulertu nuen mahaiari gehiago ez zenutela parte hartu behar eta horrengatik egin nituen egindako adierazpenak.

Auzokonpostaren inguruan:

Auzokonposta bultzatzeko konpostaren inguruko festa bat antolatu daiteke. Festa hauen inguruko informazioa Sasietari eskatuko zaio, konposta herritarren artean ezin baita banatu legalki.

Beste bi auzokonposta gune falta dira egiteko eta zer egin behar den galdetzen du.

Oreja parkeko auzokonpostaren inguruan kexak daude eta bilera bat antolatuko da.

KEXAK

Ibarbia kalea: Eskutitz bat atera da egunkarian, edukiontzia jartzeko eskaera egiten dute. Sasietak ez du honen ardura, Udalak bai eta erantzuna eman behar du.

Edukiontzietara jaisteko aldapa handia dute eta lehen edukiontzia bazeuden. Sasietari luzatuko diogu eskaera hau.

Edukiontzien atea: Debagoienako Mankomunitatean edukiontzietako atea hartzeko gailu bat jarri dute eta hau Sasietari esan.

### Ordenantza

Hurrengo bileran lantzen hasiko gara.

### Hurrengo bilera

Otsaileko bilera: otsailaren 7an arratsaldeko 18:00etan.